

# HAURREN EUSKARAREN ERABILERA ANTOKO JOLASTOKIETAN

Arhane, Ainire, Intza, Maialen

## SARRERA:

Euskara Euskal Herrian hitz egiten den hizkuntza bat da, nahiz eta Euskal Herriko lurralde guztietan ez den ofiziala; euskara koofiziala da gaztelaniarekin batera Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde osoan. Nafarroa hiru eremutan banatzen da, eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Eremu euskaldunean euskara ere gaztelaniarekin batera koofiziala da eta Nafarroako iparralde eta mendialdea dira honen parte (adibidez, Baztan, Leitza, Sakana...), eremu mistoan euskara ez da ofiziala, baina, badaude pertsona euskaldunak. Eremu honetan erdialdeko herriak sartzen dira. Azkenik, eremu ez-euskaldunean, euskarak ez du inolako ofizialtasunik, eremu hau hegoaldeko herriek osatzen dute. Ipar Euskal Herrian ez da inon ofiziala, baina, bertako batzuk euskaraz hitz egiten dute. Euskara hizkuntza minorizatua da beste hizkuntza batzuekiko mendekotasun harremana duelako eta 3.000.000 behera hiztun dituen hizkuntzetako bat delako, zehazki, 751.700 hiztun ditu.

Euskal Herri luze eta zabalean euskararen egoera ez da berdina: Gipuzkoaren euskararen erabilera %30,6koa da, Nafarroa Beherea eta Zuberoan %10,5ekoa, Bizkaian %9,4koa, Nafarroan %5,9koa, Araban %4,8koa eta Lapuridin %2,6ekoa da.

Azken urteetan egindako ikerketek eskuratu diren datuek euskararen iraupena urte batzuetako kontua izango dela. Horregatik, euskararen erabilera aztertzea erabaki da, baita aztertzaileen hizkuntza delako ere. Zehazki, Pasaia haurren euskararen erabilera aztertu da hauek etorkizuna direlako eta oso komenigarria delako beraiek euskaraz hitz egitea beraien seme-alabei ere euskaraz hitz egiteko. Bestalde, eskuhartze bat egitea errazagoa da haurrekin ekintzetan parte hartzeko pertutasun handia erakusten baitute helduek ez bezala.



## EGITEKOA:

Bi egunetan, bi lekutan hartutako datuak aztertu dira. Batean eskuhartzea egin da eta bestean ez da ezer egin, soilik neurriak hartu kontrol eremu bezala edukitzeko.

### Helburu nagusiak:

Diagnostikorako hipotesia

- Kantxetako haurren euskararen erabilera Argitxoren parkekoa baino handiagoa izango da.
- Kontuan hartuz Pasaia osoko haurren euskararen erabilera %41ekoa dela, espero da Kantxetako euskararen erabilera %60 ingurukoa izatea.

Eskuhartzearen inpakturako hipotesia

- Argitxoren parkeko haurren euskararen erabilera handituko da kantxetako gainditu gabe.

## MATERIALA ETA METODOAK:

### Ikerketa area:

Ikerketa Pasaia Antxoko 2 jolastokietan egin da, beraz, ateratako emaitzak bertan dira aplikagarriak. Pasaia Antxo, Pasaia barrutietako bat da. 4644 biztanle ditu eta bertako euskararen erabilera %20koa da, aldiz, haurrena handiagoa da, zehazki, Pasaia guztiko haurren euskararen erabilera %41ekoa da.

### Esperimentu diseinua:

Pasaia Antxoko haurren arteko elkarrizketetatik euskaraz zenbat diren ikertzeko laginketa bi jolastokietan egin da (Kantxak eta Argitxoren parkea) eta horietatik Argitxoren parkean eskuhartzea egin da, eta Kantxak kontrol eremu bezala hartu dira. Bi toki horiek erabaki dira, haurrak egoten diren eremuak direlako eta bai eskuhartzea bai neurketak ostiraletan egitea erabaki da haur gehien dauden eguna delako, kontuan hartuta egun bereziak ez direla emaitzetan eraginik ez edukitzeko.

Eskuhartzea egiteko, haurrak ikastolatik atera baino lehen, parkean aurretik egindako kartelak jarri dira haurrei jakinarazteko beraien egin beharrekoa eta euskaraz hitz egiteko animatzeko. Argitxoren jantzia parkean eta gertuko inguruetan izkutatu da, arroparen zati bakoitza toki desberdin batean, eta aurkitzen joan direna, bertan utzitako poltsa batean sartzen joan dira. Bukatutakoan, jarritako karteletako batean jarri bezala, Argitxo deitzen hasi dira eta bi ikertzaile atera dira beraiekin hitz egiteko eta euskaraz hitz egin behar dutela gogorarazteko. Bitartean beste ikertzaile bat elkarrizketen hizkuntza neurtzen egon da parke horretan, eta beste bat Kantxetan.

## KANTXAK



## ARGITXOREN PARKEA



## Datuen bilketa:

Soziolinguistikako klusterrak sortutako aplikazioaren bidez neurtu dira haurren arteko elkarrizketak. Honekin, hainbat neurketa egin dira: eskuhartzea baino lehen, kantxetan eta argitxoren parkean aldi berean egin dira neurketak eta ondoren, eskuhartzea eta gero, neurketak berriz egin dira aldaketaren bat egon den edo ez jakiteko. Neurketa hauek egiteko, neurtzailea jolastokietan dauden bankuetan eseri da eta bertatik aritu da haurren arteko elkarrizketak entzuten eta apuntatzen. Modu honetan haurrek ez jakiteko zer ari zen egiten eta ez zuten beraien hizkuntza ohitura aldatuko, emaitzak errealistagoak izanda.

## Datuen analisisa:

Lortutako datuak aztertzeko, datu horiek ehunekoetan bihurtu dira konparaketak egin ahal izateko, eta horrela, ondorioak ateratzeko.

## EMAITZAK ETA EZTABAIDA:

### Eztabaida:

Alde batetik, kantxetako euskararen erabilera argitxoren parkekoa baino handiagoa izango zela espero zenean, zuzena zen, baina, esperotakoa baino handiagoa suertatu da. Bestetik, argitxoren parkeko euskararen erabilera igoko zela aurreikusitako gertatu gabe, eta horrela gertatu da. Hau uste zen kantxetan ikastolatik atera berriak izanda, irakasleak zein gurasoak aurrean egonda, haurrek euskara gehiago hitz egiten dutelako eta egun osoa daramatelako euskaraz hitz egiten. Bestalde, ere espero zen haurren euskararen erabilera Pasaia osoko haurrena baino handiagoa izatea esandako arrazoiengatik, haurrak gurasoen aurrean egonda euskara gehiago hitz egiten dutelako eta Pasaia osoan haur asko daudelako euskaraz ez dakitenak, baina, neurketak egindako eremua kontuan hartuta, pentsatu daiteke bertako guztiek edo gehienek euskaraz dakitela.

Eskuhartzeak nahiko eragin handia eduki du eta hau arrazoi hauengatik izan dela uste da: batetik, kartel baten bidez gogorazitako zitzaien haurrei euskaraz hitz egin behar zutela, bestetik, Argitxoren lotutako ekintza bat izanda, haurrak euskara gehiago hitz egiteko presioa sentitzen dute, azkenik, beraien erronka bukatu eta gero, aztertzaileak atera ziren beraiekin berriz ere gogoraziz euskaraz hitz egin behar zutela.

Neurketak egiterakoan, euskara eta gaztelera ez diren entzun ziren hizkuntza bakarra arabea izan zen eta elkarrizketa bakarrean entzun zen.

## ONDORIOAK:

Egindako hasierako hipotesiak nahiko zuzenak zirela esan daiteke, izan ere, nahiz eta guztiz ez asmatu, egindako aurreikuspenak asko gerturatu dira errealitatean.

Hurrengo batean, norbaitek horrelako eskuhartze bat egin nahiko balu, lehenik, lagina nolakoa den jakitea gomendagarria da, adibidez, laginak ez badu Argitxo ezagutzen, ez du zentzurik Argitxori buruzko eskuhartze bat egitea. Bestetik, zein egunetan egitea ere kontuan hartu beharreko zerbait da, neurketak zein eskuartzea ezin dira egun berezietan egin emaitzetan eraginik ez izateko. Azkenik, lagina nahiko handia izaten saiatu behar da emaitzak zehatzagoak izateko, horretarako, publikitatea egin daiteke kartelen bidez edo sare sozialen bidez.

## BIBLIOGRAFIA

- Valadez, C., Etxeberria, F., & Intxausti, N. (2015). Language revitalization and the normalization of Basque: a study of teacher perceptions and expectations in the Basque Country. *Current Issues in Language Planning*, 16(1-2), 60-79.
- Zuazo, Koldo (1996). «The Basque Country and the Basque Language: An overview of the external history of the Basque language». En Hualde, José Ignacio; Lakarra, Joseba A.; Trask, R.L., eds. *Towards a History of the Basque Language*
- SK. (2019). Pasaian euskara. BAT, 20-30.
- Euskararen Ofizialtasuna | Flickr - Photo Sharing!, s. f.)m

